BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO PREBENTZIO, SU ITZALKETA ETA SALBAMENDUKO ZERBITZURAKO BASO SUTEAK ITZALTZEKO MODULU TRUKAGARRI BATEZ HORNITZEKO (X25016 ESPEDIENTEA)

AURKIBIDEA

1.- XEDEA

2.- EKIPOA/MODULUA
- 2.1. NEURRIAK ETA PISUA
- 2.2. TXASISERAKO LOTURA ETA ATERATZE SISTEMA
- 2.3. SISTEMA ELEKTRIKOA ETA ARGIZTAPENA

3.- KARROZERIA
- 3.1. BILTEGIRATZEA
- 3.2. MODULUAREN GOIKO PLATAFORMA / SABAIA
- 3.3. AGINTE KONTROLA

4.- SUA ITZALTZEKO INSTALAZIO HIDRAULIKOA
- 4.1. MOTORRA ETA UR PONPA
- 4.2. UR ZISTERNA

5.- AKABERAK

6.- ADJUDIKAZIODUNAK EMAN BEHARREKO AGIRIAK

7.- FABRIKAZIOAREN IKUSKAPENA

8.- JASOTZEA
- 8.1 AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA
- 8.2 AZTERKETA OROKORRA ETA PRESTAZIOEN AZTERKETA

9.- ERABILTZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA

10.- SALDU OSTEKO ZERBITZUA

11.- BERMEAK

1.- XEDEA

Plegu hau idatzi da Gipuzkoako Foru Aldundiko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko Zerbitzurako baso suteak itzaltzeko modulu trukagarriak bete behar dituen ezaugarri eta baldintza teknikoak zehazteko. Modulu trukagarria dagoeneko zerbitzuan dauden Mercedes Unimog U400 markako eta 405102 mota eta U400/30 aldaerako kamioi modulu-eramaileetako batean jarriko da, eta aukera emango dio helezinak diren tokietara ur kantitate handiak garraiatzeko; gainera, ibilgailu horri baso ponparen gaitasunak emango dizkio. Kontratazioa aipatutako Suhiltzaile Zerbitzuaren 2025eko Inbertsioen Aurrekontuaren 0450.500.630.02.01.2025 partidaren kontura izango da.

Modulua eta hornitutako ekipoak berri-berriak izango dira, eta plegu hau Kontratatzailearen Profilean argitaratu aurretik merkatuan eskuragarri zeuden ereduekin bat etorriko dira.

Eskaintzek dokumentu honetan deskribatutako zuzkidura, materialak eta osagarriak jasoko dituzte.

Proposamen teknikoak hurrengo ataletan deskribatzen diren baldintza teknikoak bilduko ditu gutxienez, zeinak behar bezala justifikatu beharko baitira aurkezten diren eskaintzetan, bereziki, justifikatzea berariaz eskatzen duten atal bakoitzean zehaztutakoak, eta ez da onartuko «pleguan ezarritakoa» eta antzeko aipamenak egitea edo plegu teknikoan esandakoa hitzez hitz kopiatzea.

Dokumentu honetan adierazitako baldintza teknikoak betetzeaz gain, moduluak aplikagarriak diren indarreko araudi guztietan xedatutakoa beteko du.

Erabat beteko ditu jarraian jasoko diren baldintza teknikoak, bai eta *UNE-EN 14466 araudia* ere (*Suteen aurkako ponpak. Motoponpa eramangarriak. Segurtasuna eta funtzionamendu eskakizunak, saiakuntzak*).

Suhiltzaile Zerbitzu honekin lotutako kalitate- eta ingurumen-gaiei dagokienez, kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko *ISO 9001:2015 ziurtagiria* eta ingurumen babesaren *ISO 14001:2015 ziurtagiria* aurkezteko eskatzen da.

Eskaintza egin duten enpresek ziurtagiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskaintzarekin batera:

- Suteen aurkako ponparen fabrikatzailearen *ISO 9001:2015 ziurtagiria*.
- Suteen aurkako ponparen fabrikatzailearen *ISO 14001:2015 ziurtagiria*.

2.- EKIPOA/MODULUA

Sua itzaltzeko moduluak barne hartzen ditu ur andela, errekuntza motor independentea duen motoponpa finkoa, txirrika automatikoak, argiztapena, aginte kontrola eta armairuak. Polipropileno motako material plastikoz egina egon behar du.

2.1. Neurriak eta pisua

Moduluaren neurriek aplikatu beharreko araudia beteko dute, eta honako balio hauetara egokituko dira:

- Guztizko altuera < 1.700 mm
- Guztizko luzera < 2.800 mm
- Guztizko zabalera < 2.300 mm

Eskainitako unitatearen plano kokatu bat aurkeztuko da, eskatutako kotak betetzen direla egiaztatzeko.

Sua itzaltzeko moduluak barne hartzen ditu ur andela (hutsean), errekuntza motor independentea duen motoponpa finkoa, txirrika automatikoak, argiztapena, aginte kontrola eta armairuak, eta 1.500 kg baino gutxiago pisatu behar du.

2.2. Txasiserako lotura eta ateratze sistema

Moduluak ibilgailuaren txasisetik erraz desmuntatzeko modukoa izan behar du. Aukera egon behar du lau hanka teleskopikoren bidez altxatu eta txasisetik askatzeko, ibilgailu hori beste eragiketa batzuetan erabili ahal izateko. Txasisera lotu eta hartatik askatzeko, Pivot Shells sistemarekin bateragarria den konexio sistema bat erabiliko da.

Modulua ateratzeko, eskuzko biradera baten bidez nibelatzen diren altzairuzko 4 hanka erabili beharko dira. Gutxienez, 3 tonako karga ahalmena izan behar du hanka bakoitzak. Moduluarekin batera emango dira lau hanka horiek.

Osagai guztiak plataformara finkatuta egongo dira, eta plataforma gainegitura batean bermatuta egongo da, txasisaren tortsioek eragin ez diezaioten.

Instalatutako ezein sistemak, kanalizazio hidraulikok (txorrotak edo hodiak, adibidez), atzeko plataformak edo beste ezein elementuk ez du oztoporik jarri beharko ibilgailu eramailearen irteera- eta sarrera-angeluan, ez eta beste ezein alderditan ere.

2.3. Sistema elektrikoa eta argiztapena

Sistema elektrikoaren instalazio osoak behar bezala isolatuta eta ur zipriztinen kontra babestuta egon beharko du. Era berean, kableen atalak erabiltzeko modukoa izan beharko du. Moduluaren eta ibilgailu eramailearen arteko konexio elektrikoa azkarra izango da.

Ekipoak lanerako argitasun handiko LED motako argiztapen sistema bat izango du: LED barrak egongo dira alboetako eta atzealdeko alderdirik garaienean instalatuta, eta eskuz bideratu daitezkeen argitasun handiko lanerako bi LED foku izango ditu atzeko aldean. Argiok pizteko aginteen kontrola erabiliko da.

Armairuen barruan ere LED argiztapena egongo da, 3.1 apartatuan ezarritako zehaztapenen arabera.

3.- KARROZERIA

3.1. Biltegiratzea

Moduluaren karrozeriak edukiera handiko bi armairu izango ditu, zuzkidura materiala jartzeko. Moduluaren atzeko aldeko alboetan egongo dira, eta dagokion pertsiana irekitzean automatikoki pizten den LED motako barruko argiztapena izango dute, bata ezkerraldean eta bestea eskuinaldean. Hornidura elektrikoa ibilgailu eramailearekiko konexioaren bidez egingo da.

Armairuak polipropilenoz eginda eta ur andelean integratuta egongo dira. Barrualdean, finkapen hariztatu estandarrak izango ditu, konfigurazio pertsonalizatua lortzeko. Armairuok drainatzeko zuloak izango dituzte barrura sar daitekeen ura ateratzeko, baita aireztapen saretak ere.

Bi armairuak aluminio anodizatuzko xaflaz egindako pertsiana autobaskulagarrien bidez itxiko dira; pertsianok danborrean biltzeko modukoak eta orekatuak izango dira, armairuak ireki edo ixteko ahalegin handirik egin behar ez izateko. Xaflen artean eta lerragarrien gaineko itxiduretan beharrezkoak diren elementuak muntatuko dira hermetikoak direla eta izozten ez direla bermatzeko. Pertsianari eragiteko, oinarekiko paraleloa den luzetarako barra bat erabiliko da, eta material sintetiko erresistentez egindako uhal bat egongo da, pertsiana goiko aldean dagoenean hari tira egin eta errazago erabiltzeko.

Armairu bakoitzak gutxienez 550 litroko edukiera izan behar du, eta gutxienez 1100 x 500 x 1000 mm-ko neurriak izango ditu. Armairu bakoitzak erretilu zatitzaile bat izango du tartean, eta eusteko kirtenak barrualdeko alboetan.

Ezkerreko armairuan, tarteko erretiluaren behealdean eta atzealdean, euskarri hauek izango ditu: suari erasotzeko lantzetarako hiru euskarri, ur hargunearen giltzarako euskarri bat, adarkaduretarako hiru euskarri (bata 70-45 mm-koa, bestea 45-25 mm-koa eta azkena 25-25 mm-koa) eta erredukzioetarako bi euskarri (bata 25 mm-ko diametrorako eta bestea 45 mm-ko diametrorako). Tarteko erretiluaren azpian gelditzen den eremuan, 20 metroko luzera eta 25 mm-ko diametroa duten gutxienez 8 mahuka posizio bertikalean jartzeko diseinatutako egitura bat egongo da.

Ezkerreko armairuaren tarteko erretiluaren goiko aldean, atzealdean, 20 metroko luzera eta 45 mm-ko diametroa duten gutxienez bi mahuka eta 20 metroko luzera eta 70 mm-ko diametroa duten hiru mahuka posizio bertikalean kokatzeko egitura bat jarriko da.

Armairuetara ondo iristeko, armairu bakoitzera sartzeko gutxienez hiru maila egongo dira moduluan. Mailok gutxienez 150 kg-ko karga jasan ahalko dute, eta duten gehieneko euste-ahalmena adierazten duen plaka bat izango dute. Mailon alderdi horizontala aluminio anodizatu ildaskatu eta irristagaitzez estalita egongo da, Alemaniako *DIN 51130:2014* ziurtagiriaren arabera, zeinak oinetakoekin igarotzea aurreikusten den zoladura irristagaitzaren estandarrak eta ezaugarriak ezartzen baititu: R11.

Atzeko aldeko oinean, moduluak egitura bat izango du, zeinak Zerbitzuan dagoen 500 mm x 830 mm-ko motoponpa eramangarri bat ainguratuta eramateko gaitasuna izango baitu.

Eskatutako neurriak zehazten dituen plano kotatua aurkeztuko da, baina amaierako konfigurazioa zerbitzuko teknikariekin adostuko da.

3.2. Moduluaren goiko plataforma / sabaia

Moduluaren sabaia gainetik igarotzeko modukoa izango da, eta gainazal irristagaitzei eta ur drainadurari buruzko araudia beteko du. Gizakientzako sarbidea plataforma/sabai horretan egongo da.

Erorikoen aurkako segurtasun sistema gisa, bi puntuko segurtasun soka bat izango du langileak ibilgailuaren sabaian dauden bitartean haiei eusteko.

Sabaira atzealdeko alboetatik igoko da, moduluaren bi alboetan dauden eta maila irristagaitzak dituzten eskailera zabalgarrien bidez.

Moduluaren sabaian altzairu herdoilgaitzezko bi kutxa edo tiradera jarriko dira, sua itzaltzeko erremintak eta elementuak biltegiratzeko. Kutxek sabaian tinko finkatuta egon beharko dute, eta lizitatzaileak hornituko ditu.

3.3. Aginte kontrola

Ekipoaren atzealdean, langilearentzat irisgarria den posizio batean, aginte kontroleko koadro bat instalatuko da, zeinak gutxienez elementu hauek izango baititu:

- Manobakuometroa.
- Larrialdiko geldialdia.
- Argia.
- Alboko goialdeko argietarako eta atzeko fokuetarako etengailua.
- Harilkai elektrikoei eragiteko agintea.

Mantentze lanetarako, aukera egon behar du panela kentzeko eta motoponpa multzotik desakoplatzeko hiru bideko etengailu baten bidez, zeinak erraz eta azkar instalatzea ahalbidetuko baitu.

4.- SUA ITZALTZEKO INSTALAZIO HIDRAULIKOA.

Osagai hauek izango ditu, *UNE 23900 arauaren* dagokion apartatuaren arabera: ur andela eta motorra, ibilgailuaren atzeko aldean dagoen suteen aurkako ponpa finkoa, eta dagozkion zirkuituak.

Eroanbideak korrosioak eragiten ez dien materialekin egingo dira. Eroanbideak laneko presio handienak jasateko moduan kalkulatuko dira.

Bulkada ahoetako errakor guztiak «Barcelona» motakoak izango dira. Xurgapen ahoetako errakoreak «Storz» motakoak izango dira.

Ponpak hustubide bat izango du, bai ponpa bera bai erantsitako zirkuituak husteko. Ponpatik tangara doan elikadura hodiak itxiera balbula bat izango du.

Instalazio hidraulikoaren elementu eta osagai guztiak behar bezala seinaleztatuko dira.

Instalazio hidraulikoak aukera emango du, ibilgailua aparkatuta dagoela, ura aldi berean zisternatik nahiz kanpo saretik hartzeko eta edozein bulkada irteeratik jaurtitzeko.

Itzaltzeko instalazioaren diagrama emango da, eta bertan argi zehaztuko dira instalazioaren osagai guztiak.

4.1. Motorra eta ur ponpa.

Ponpa hidraulikoari eragiteko, moduluak 2 zilindroko gasolina bidezko 4 aldiko motor bat izango du ponparen ondoan, moduluaren atzealdean. Motorrak kamioiaren motorrarekiko independentea izan behar du, eta abiarazte elektrikoa izan behar du (bateria propioa eta alternadorea), kamioi eramailearen bateriarekin konektatzeko modukoa eta eskuz abiaraztekoa.

Motorrak gutxienez 23 cv-ko potentzia eta 620 cm^3-ko zilindrada izango ditu. Olio mailaren adierazle bat eta motoponparekin konexio azkarreko sistema baten bidez konektatutako gutxienez 24 litroko erregai tanga gehigarri bat izango ditu. Ponparen motorreko gasolina-deposituak babes-sistema edo -zorroren bat izan beharko du, suak kamioia harrapatzen badu suetatik babesteko.

Moduluak 4 etapako ponpa hidrauliko zentrifugo batez hornituta egon behar du. Ponparen gorputzak eta gurpilek aluminioz eginda egon behar dute eta korrosioaren aurkako tratamendua izan behar dute, eta ardatza altzairu herdoilgaitzezkoa izango da. Ez du mantentze lanik beharko eta erabat estankoa izango da.

Hauek izango dira ponparen gutxieneko prestazioak:

- 350 LPM 10 Bar-era
- 150 LPM 25 Bar-era

Beraz, gehieneko emaria gutxienez 350 LPM-koa izango da, eta laneko gehienezko presioa 25 Bar-ekoa.

Ponpa hiru bideko balbula baten bidez elikatuko da, aukera hauekin:

- Moduluko ur andelaren bidezko elikadura.
- Kanpoaldeko elikadura, Storz motako errakorra duen 2”-ko diametroko sarbidearen bitartez, zeinak aukera emango baitu xurgapen bidez hornitzeko. Horretarako, gutxienez 6 metroko mahukak izan beharko ditu multzo osoan, espiral zurruna eta barneko gainazal leuna dituen PVC malguzko mahuka batekin. Mahukaren tenperatura tarteak 0 eta +60 ºC artekoa izan behar du. Mahukaren diametro izendatuak 50 mm-koa izan behar du. Konexioa mahuka multzoaren mutur batean egiteko, atzeraezeko balbula bat duen partikula iragazki bat eduki beharko da, zebatzeko eragiketa hobeto egiteko.

Ponparen bulkada sistema, bultzada kolektorearen bidezkoa, zeinak aukera emango baitu deskarga linea desberdinen artean aukeratzeko, Bartzelona motako errakoredun hargunea duten DN/25-eko 2 irteera eta DN/45-eko irteera bat. Irteera bakoitzak balbula esferikoak izango ditu.

Gainera, atzealdean, moduluak bi bulkada-txirrika elektriko izango ditu, korrosioaren aurka babestuak, eta blokeoko eta birbobinaketako sistema batekin. Bi txirriketako bakoitzak 25 mm-ko diametroko eta 100 m-ko luzerako mahuka lau bat 20 metroko luzerako zatietan jasotzeko modukoa izan beharko du, gutxienez.

Moduluak atzeko plataforma bat izan behar du, gutxienez 350 x 900 mm-koa, motoponpaz eta harilkaiz osatutako multzoarekin eroso jarduteko, eta jasota dagoenean

ez du ibilgailuaren irteera angelua oztopatu behar. Gainera, ponpa finkoaren eta motoponpa eramangarria lotzeko egituraren artean barra bertikal bat egongo da, langilearentzat helduleku izango dena.

Lizitatzaileak, eskaintza teknikoan, emari/presio kurbaren berri emango du, eta idatziz adieraziko du gehieneko emari onargarria.

Era berean, sistema eta gailu hauek izango ditu:

- Depresore bolumetriko bidezko zebatze sistema bat, metalezko gorputza duena, eskuz eragitekoa.
- Ponpa eta zirkuitu hidraulikoak hustea ahalbidetzen duen gailu bat.
- Gehiegizko tenperaturatik eta gehiegizko presiotik babesteko sistema.
- Segurtasuneko babesgailu bat, bulkada lerroak etengabe funtzionatzen ari direnean ponpako ura berotu ez dadin.

Errakor guztiak katez atxikitako tapa izango dute.

Suteen aurkako ekipoa abiarazteko aginte, palanka eta gailu guztiek (sakagailuak barne) tamaina eta ezaugarri egokiak izan beharko dituzte, suhiltzaile-eskularruak jantzita ere erabili ahal izateko.

Beharrezkoa denean, aginte eta adierazleek behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute, gaztelaniaz idatzitako aluminiozko kartelekin eta/edo erabilera arrunteko sinbolo normalizatuen bidez.

4.2. Ur zisterna

Ur zisterna urak kalterik eragiten ez dion polipropilenozko gainegitura batez fabrikatuko da, eta gutxienez 3.000 litroko edukiera izango du. Karga handitu ez dadin, ez da onartuko zisterna altzairu herdoilgaitzez egina izatea.

Zisternak uraren inertzia efektuak murrizteko behar adinako olatu-hormak izango ditu, konpartimentu guztiak elkarrekin komunikatuta egongo dira eta irisgarriak izango dira, zisterna ikuskatu eta garbitzeko. Horien kopurua eta antolamendua *UNE 23900 arauaren* dagokion apartatuan ezarritakoarekin bat etorriko da.

Zisternaren barrualdea ikuskatzeko, gizakientzako sarbide bat jarriko da, 400 mm-ko diametrokoa gutxienez, eta irekiera eta itxiera azkarra izango du eta hermetikoa izango da.

Zisterna 2 ½''-ko bi (2) hargune independente eta zuzenez elikatuko da, eta katetxoz lotutako tapa duen 70 mm-ko Barcelona motako errakorea izango dute. Ibilgailuaren moduluaren alboetan ezarriko dira, eta balbula esferikoak eta solidorik ez igarotzeko sareta izango dituzte. Betetzeko bi sarreren ondoan, ¾"-ko kanila duten irteerak izango ditu. Aurrez deskribatutako sarrerez gain, tangak itzulerako eta/edo zisterna betetzeko gutxienez 1,5"-ko tamaina duen sarrera bat izango du.

Kanpoko diametroa 120 mm-koa duen gainezkatze tutu bat izango du, eta horren muturra moduluaren beheko aldean kokatuko da, gainezkatze urak ez dezan kalterik

eragin txasisaren edo bastidorearen metalezko zatietan. Ponpara doan elikatze hodi bat izango du.

Halaber, behealdean, zisterna husteko edo drainatzeko balbula bat izango du, 1”-ko tamainako bola balbula batekin.

Uraren mailaren adierazle optiko bat (fisikoa) izango du, langilearen postutik ikus daitekeena.

Tangak, hutsik dagoenean, ez du 450 kg baino gehiago pisatuko.

Aukeratutako soluzioari buruzko informazio osoa eta zehatza emango da.

5. AKABERAK

Margotutako gainazal guztiak aurrez desugertuta egongo dira. Margotzeko prozesua *UNE 23900* eta *UNE 48103* arauen dagozkien apartatuen arabera gauzatuko da.

Kolore hauek erabiliko dira:

- Moduluaren egitura: beltza
- Karrozeria: RAL 3000 gorri bizia.

Errotulazioa eta seinaleak: modulua behar bezala errotulatuta entregatuko da; horretarako, Zerbitzuak jadanik badituen halako beste unitateen ezaugarri berberak mantenduko dira, eta kalitate bereko materialak erabiliko dira. Era berean, indarrean den araudiak eskatzen dituen seinale perimetralak jarriko dira.

Ibilgailua-modulua multzoaren inguruak definitzeko, III. mailako geruza bakarreko errotulazio atzeraislatzaile prismatiko homologatua ezarriko da, distantzia ertain nahiz luzera eta ibilgailua edozein posizio edo norabidean kokatuta dagoela ere identifikatu ahal izateko, baita azalera gutxi estaltzen dutenean ere. III. mailako geruza bakarreko errotulazio prismatiko atzeraislatzailea aplikatuko da, halaber, ibilgailuaren berezko markak ezartzeko, distantzia laburrean erraz identifika dadin. Arau bera aplikatuko da irudi korporatiboaren errotuluak prozesatzeko.

Armairuen ateek, lan plataformek, pertsianek, biltegiratze kaxek edo, irekita daudenean, ibilgailuaren kanpoaldea baino 250 mm kanporago dauden bestelako elementuek behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute, kolpe arriskua egon daitekeela adierazteko. Horretarako, III. mailako zerrenda atzeraislatzailez errotulatuko dira elementu horien ertzak.

Kabinan edo karrozerian seinaleztatzeko edo errotulatzeko elementuak itsatsi behar badira, eremu horietan margo lisoa jarriko da, txapara ongi itsatsi ahal izan daitezen.

Zerbitzuaren zuzendaritzak zehaztuko du errotulazio korporatiboa, ibilgailua entregatu baino lehen.

6.- ADJUDIKAZIODUNAK EMAN BEHARREKO AGIRIAK

Enpresa adjudikaziodunak produktuaren edo soluzioaren, karrozeriaren eta ekipamenduaren berezko dokumentazioa emango du, bai eta haren erabileraren, ezaugarri teknikoen eta mantentze lanen eskuliburua ere, gaztelaniaz, hala euskarri fisikoan (gutxienez bi ale, paperean) nola digitalean.

Eskaintzan gutxienez agiri hauek sartuko dira:

- Eskainitako modulu edo soluzioaren ezaugarriak deskribatzeko dokumentuen bi ale (horietako bat formatu informatikoan); horretan jasoko dira erabiltzeko eta mantentzeko argibideak, xehetasunen planoak, funtsezko zirkuituetako bakoitzaren eskemak (eskema elektrikoak, etab.).
- Moduluarekin batera emango diren osagarri, erreminta eta ordezko piezen zerrenda osoa.
- Eskaintzako multzoa fabrikatzean aplikatutako araudi guztien zerrenda.
- Eskaintzako ekipoarentzat proposatutako mantentze planaren xehetasuna.

Modulua jasotzean, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- Ziurtagiriak eta dokumentu teknikoak, baita instalazioen fabrikazio eta muntaketakoak ere, eraikitzaileek emandakoak.
- Proba eta saiakeren ziurtagiriak.
- Funtzionamendu eskuliburua, zeinak barne hartuko baititu funtzionamendu egokirako beharrezkotzat jotzen den maneiua eta mantentze lanak.

Aipatutako dokumentuez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak beste agiri osagarri batzuk eskatu ahal izango ditu beharrezkoak diren alderdiak hobeto ezagutzeko.

7.- FABRIKAZIOAREN IKUSKAPENA

Beharrezkotzat jotzen bada, entregaren aurretik, lizitatzaileak aukera izango du egiaztapen bisitaren bat egiteko unitatea fabrikatzeko prozesuan, materialen kalitatea ona dela edo egikaritzeko modua dokumentu honetan zehaztutakora egokitzen dela egiaztatze aldera. Bisitak eragindako gastuak adjudikaziodunaren kargura izango dira.

8.- JASOTZEA

8.1. Entregatzeko tokia eta epea

Entrega Zerbitzuak adierazitako suhiltzaile etxean egingo da, eta 8.2 apartatuan deskribatutako probak egingo dira.

Modulua entregatzeko epea 2025eko abenduaren 16an bukatuko da.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu unitatea Zerbitzuak adierazitako lekuraino garraiatzeko gastuak.

Aldundiak errekerimendurik egin gabe ere, adjudikazioduna berandutu egingo da entrega aipatutako epean egiten ez badu.

8.2. Azterketa orokorra

Neurriak, itxura orokorra, xehetasunak, ekipamendua eta tresnak proposamenarekin bat datozela egiaztatuko da.

Instalazio hidraulikoen, ur ponparen eta osagarrien prestazioak egiaztatuko dira.

9.- ERABILTZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA

Adjudikaziodunak gutxieneko prestakuntza bat eman beharko die, bere kargura, ibilgailua egongo den suhiltzaile etxeko agintariei (kaboak eta sarjentuak) eta mantentze lanetako langileei. Prestakuntza horretan, moduluan instalatutako ekipoen erabilera eta horien mantentze lanak jorratuko dira, bai eta baso suteetarako modulu trukagarria moduluak eramateko kamioiari lotzeko eta horretatik askatzeko prozedurari buruzko gaiak ere.

Prestakuntza Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile etxeetako batean emango da, laneko ordutegian, eta suhiltzaile etxeko arduradunekin zehaztu beharko dira datak.

Prestakuntza hori 10-15 laguneko talde bati irakatsi beharko zaio.

10.- SALDU OSTEKO ZERBITZUA

Enpresa lizitatzaileek saldu osteko zerbitzu propio bat izan beharko dute, erosleak hornidurarekin izan ditzakeen gorabeherei erantzuteko.

Ikusirik ekipoa oinarri-oinarrizkoa dela, eta ustekabeko larrialdi egoerei erantzuna eman behar diela, funtsezko atalen matxura edo haustura baldin badago lizitatzaileek berehala erantzutea eskatuko da. Kontuan hartuko da, halaber, moduluaren ordezko piezen eskuragarritasuna, eta konpontze lanak egiten dituen teknikari espezializatuaren erantzun denbora.

Beraz, honako hauek aurkeztuko dira eskaintzan:

- Gaur egun indarrean dagoen tarifa (€/eskulan orduko, joan-etorrien kilometro kopurua, dietak…).

11.- BERMEAK

Moduluaren bastidorearen, karrozeriaren eta ekipamenduaren bermealdia, gutxienez, hogeita lau hilabetekoa izango da, jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, adjudikaziodunaren kontura izango dira egin beharreko konponketa guztiak, materiala eta eskulana barne, materialean edo eraikuntzan akatsak badaude edo dagozkion mantentze lanak egin behar bazaizkio.

Donostian, 2025eko uztailaren 18an

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
JUAN JOSE ARAMBURU MICHELENA - 15260414Y
2025.07.18 13:25:51 +02'00'

Juan Jose Aramburu Michelena

Prebentzio, Su itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren ofiziala

Oniritzia: JOSE MARIA AZCOAGA LASHERAS - 44164936Z
Digitalki sinatuta norengandik: JOSE MARIA AZCOAGA LASHERAS - 44164936Z
Data: 2025.07.18 13:45:07 +02'00'

Jose Maria Azcoaga Lasheras

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu zerbitzuburua